



Esp. kodea: 2014SAPL0012

Gaia: 2014-11-04

Hasiera eguna: 2014/10/28

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2014ko azaroaren 4a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2014ko urriaren 21a egindako bileraren akta onartu du.

2.- “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”REN AGIRIA HASIERA BATEAN ONTZAT EMATEA.

Udalbatzarrak aho batez onartu du hasiera batean ontzat ematea “ARRASATEKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRA”ren agiria. Horrekin batera, adostu da hirigintzako planei hasierako onespina emateak berekin ekarriko duela edozein eratako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko aukera etetea planean xedatutakoaren ondorioz indarreko hirigintza-araubidean aldaketak izan dituzten eremuetarako. Etete horren gehieneko epea egitamu orokorretako kasuan 2 urtekoa da.

Baita ere, aipatutako agiria jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean hedadura duen egunkarian dagokion iragarkia argitaratuz, jendaurreko epea 2015eko urtarrilaren 27 arte izango delarik; akordioa sektore eskumenak dituzten bestelako administrazioei ere jakinaraztea eta agiria Udal Planeamenduaren Aholku Kontseilura bidaltzea, dagokion txostena egin dezan.

3.- CEI ARRASATE S.A.: KAPITAL ALDAKETAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak honako informazioaren berri hartu du:

CEI Arrasate S.A.n 2013ko ekitaldian %59,90eko kapitalaren murrizketa egin zela, Udalak bertan duen %13,52ko partizipazioaren balioa 114.480 € takoa izatetik 45.900 € takoa izatera pasatzeko, akzioen balio nominalaren murrizketa eginez.

Arrasaten, 2014ko azaroaren 4a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta